

## ZUIAKARIRAKO ERREPORTAIA: LAN ETA JOLAS

### Elkartearen izena

Urkabustaizko euskara-taldea. *Lan eta Jolas* elkarte.

### Helbidea eta kontaktua

Izarrako frontoia. Udaletxeko plaza z/g - 01440 Izarra (Urkabustaiz)

[lanetajolas@gmail.com](mailto:lanetajolas@gmail.com)

### Noiz sortu zen? Zein izan zen sortzeko arrazoi nagusia?

2006an hasi zen taldea eratzten, Izarrako eskolako guraso batzuen ekimenez. Urkabustaizko ume guztiek euskaraz ikasten zuten eskolan, baina kalera irten orduko gaztelaniaz bizi ziren erabat. Egoera aldatu nahian, guraso euskaldun batzuk elkartu eta Urkabustaizen ekintzak antolatzen hasi ginen.

Luze gabe herriko lagun gehiago taldera bilduz joan zen eta eskolaz kanpoko beste gizarte-esparru gehiagotan eragiten hasi ginen. Gaur egun herriko bizitzaren esparru guztiak dira gure lanaren helburu, eta umeei, gazteei zein helduei zuzendutako ekintzak antolatzen ditugu.

Era berean elkarlana bilatzen dugu: ekintza zenbaitetan, indarrak biltzeko, Urkabustaizen euskara sustatzeko lanean dabiltzan beste talde batzuekin bat egiten dugu, hala nola Izarrako eskola, bertsolariak, zanpantzarrak, musika-eskola, dantza-taldea, Lan eta Jolas...

Une jakin batean euskara-taldea legez eratzeko beharra sortu zitzaigun, bereziki erakundeetan diru-laguntzak eskatu ahal izateko. Hartara, *Lan eta Jolas* elkartearen babesa erabiltzen hasi ginen eta, harrezkero, bere eraketaren barruan gaude, baina aldi berean herri-taldea gara, Urkabustaizko herritar guztiei zabalik, berdin elkarteko bazkide izan ala ez.

### Zein da elkartearen helburu nagusia? Zein da berezitasunik handiena?

**Euskara jalgi hadi kanpora!** Urkabustaizen euskaldun ugari bizi gara, gainera gure artean euskaraz hitz egiteko gogoz gaude, eta hartarako aukerak sortu nahi ditugu. Euskara kalera atera eta euskaldunen arteko harreman-guneak sortu, horixe da gure planteamendua.

**Talde herritarra eta irekia gara**, ateak zabalik ditugu eta eskertu egiten dugu denen partaidetza.

### Zein motatako jarduerak antolatzen ditu elkarteak? Esanguratsua den bat nabarmenduko zenuke?

Jarduera kulturalak dira gehienak, eta era askotakoak: hitzaldiak, ardo-dastaketak, bertso-saioak, musika-kontzertuak, kantu-tailerrak,... beti saiatzen gara ekintza ludiko eta atseginak bilatzen, adin eta interes desberdineko herritarrei zuzenduak, ahalik eta publiko zabalengana heldu nahi dugulako.

Euskaldunak ez direnak edo oraindik bidean direnak ere gure ekintzetara biltzeko ahalegina egiten dugu.

### Irakurleentzako mezuren bat, gonbidapenen bat...

Parte hartu dezatela, nahi duten guztiek bidal ditzatela euren proposamenak, bai e-mailaren bidez, zein frontoiko posta-ontziaren bidez, edo zuzenean hurbildu dadila gure bileretara; ekintza zehatzak antolatzeko biltzen gara eta, bereziki hasierako batzarretan, ideia berriak eta ugariak batzeko unean, hortxe behar izaten dugu jendearen ekarpena. Fase horren ondoren lana dator, antolatzea eta banatzea, eta hor ere, nahi duenak badu tokia.